

INTERNAZIONALISMO SOLIDARIOA ETA GARAPENERAKO HEZIKETA

1. SARRERA

Euskal curriculumaren gaineko proiektuak bi behar eta helburu nagusi osagarri erantzuten die: batetik, euskal kulturaren transmisioa ziurtatzeari, euskal kultura Euskal Herrian eragina duten hezkuntza administrazioen curriculum ofizialean presente ez dagoen edo presentzia eskasa duen aldetik, eta, bestetik, euskal kultura espezifiko transmititu eta euskal kulturak Europako eta mundu osoko ondareari ekarpenik egin beharri ez ezik, baita euskal curriculumaren barnean Europan eta mundu osoarekiko harremanean barneratuta dagoen euskal gizartean bizitzeko beharrezko gaitasunak txertatzeari ere. Partikularra eta unibertsala, batasuna eta aniztasuna polo bereiztezinak diren aldetik.

Oro har, euskal curriculumaz mintzatzen garenean, Euskal Herriari buruzko hainbat ezagutzaz baino ez garela ari dirudi: Euskal Herriaren eta Euskal Herriko historia, hizkuntza, ohiturez... Alabaina, euskal kulturaz mintzatzen garenean, euskaldunok mundua ikusi eta ulertzeko dugun moduz ari gara egiaz, hau da, euskaldunok gure ingurunea interpretatzeko dugun moduz. Hori dela-eta, euskal curriculumak ingurunearen gaineko interpretazio hori ondoko belaunaldiei transmititzeko moduari buruzko planteamendu pedagogiko itundua izan behar du.

Interpretatu dugun errealitate horren barnean sartu behar dugu nazioarteko esparrua. Izan ere, gure mugetatik kanpo gertatzen denak betidanik izan du garrantzia euskal erkidegoaren baitan, are gehiago globalizazioaren ondorioz herriak elkarren artean harremanetan dauden honetan. Gaur egun, nazioartean gertatzen den orok eta beste herri batzuetan jazotzen diren prozesuek eragin erabakigarria dute gurean; esate baterako, Iruñeko gazteek “lekualdatzea” zer den jakin behar dute, bertako Volkswagen fabrikaren inguruan jazotzen ari diren arazoak eta eztabaidak ulertuko badituzte.

Ez dago modu bakar bat nazioarteko gertakariak ulertu eta lantzeko. Areago, ikuspegi ezberdinak alor honetan diharduten gizarte eragileen artean ere igartzen dira. Hala ere, horrek ez du esan nahi elementu komunik ez dagoenik. Bada, egin dezagun ñabardurarik: inork nazioartean eragina duten gertakarien inguruan izan lezakeen ikuspegia oso baldintzatzen du pertsona hori zein inguruetan bizi den; alegia, argi eta garbi dago oso modu ezberdinean ikusten direla nazioarteko prozesuak Euskal Herrian, Frantzia edo Errusian. Esaterako, Irakeko gerra, Frantziako etorkinen matxina edo Ukrainako hauteskundeak ez dira modu berean arazoitu edo interpretatzen batean edo bestean.

2. INTERNAZIONALISMO SOLIDARIOARI ETA GARAPENERAKO HEZIKETARI BURUZKO DIAGNOSIA

2.1 Alor honetan diharduten gizarte eragileak

Hiru gizarte eragile mota daude:

- Herri pobretuen garapeneraren alde lan egiten duten elkarteak (GGKE)
- Talde internazionalistak (Komite Internazionalistak, Askapena, Euskadi-Cuba, etab.)
- Nazioarteko esparruari buruz ikertzen duten elkarteak (Gain, Ipes, Hegoa, etab.)

2.2 Gizarte eragileok hezkuntza arloan egin duten lana

- *Herri pobretuen garapenaren alde lan egiten duten elkarteek* “Garapenean hezteari buruzko lan kaiera” egin dute. UNESCO Etxeak eta EAeko GGKEen Koordinakundeko Garapenerako Heziketarako Bizkaiko Taldeak ikastetxeekin eta Berritzeguneekin batera egin duten azterketa da, eta partaidetzazko diagnostikoa da, alor honetan egiten ari diren jarduerak ebaluatu eta jarduera horiek hobetzeko estrategiak elkarrekin diseinatze aldera.
- *Talde internazionalistek ez dute egiten, oro har, hezkuntza sisteman arreta jartzen duen jarduerarik, baina landu lantzen dute heziketa edo dibulgazio arloko ildo orokorrik (adibidez, euskarri materialak, hala nola, bideoak ekoiztea). Heziketa lanaren muina brigadistak prestatu eta, brigadak non egingo diren, bertako egoeraren berri jakitea da nagusiki.*
- *Nazioarteko esparruari buruz ikertzen duten elkarteek* nazioarteko egoerak (gertakariak, prozesuak, etab.) sakonki eta monografikoki aztertzen dituzte.

3. INTERNAZIONALISMO SOLIDARIOA ETA GARAPENERAKO HEZIKETA HEZKUNTZA SISTEMAREN BARNEAN

Hezkuntza sistemaren helburuetako batek pertsona gaituak trebatzea izan behar du, esparru guztietan –persona banako, gizarteko kide eta naturako kide den aldetik– modu eragingarrian jokatzeko. Jorratzen ari garen gaiari dagokionez, ordea, honako alderdi hau interesatzen zaigu: pertsona kultura jakin bateko eta, aldi berean, unibertsoko kide izatea, alegia, pertsona munduko gainerako kideekin integratzea.

Honako hauxe da gakoetako bat: etnia, nazionalitate eta talde ezberdinak elkarrekin bakean bizitzeko hezi eta gazteek, gizartearen aurka babestu edo gizartetik bereizi ordez, gizartearen eraikuntzan modu aktiboan parte hartzen duten gizartea osatzea. Ildo horretan, UNESCOk XXI. mendeko Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordea sustatu zuen eta, 1993. urtean adierazi zuenez, elkarrekin bizitzen ikasteak berebiziko garrantzia du; horretarako, baina, bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko oinarritzakoak diren balioen sistema ezarri behar da, balio sistema egungo erakundeek herritartasuna erabiltzea dela-eta euren gain hartu behar duten konpromisorik esanguratsuenetakoa den neurrian, eta, era berean, kontuan hartu beharra dago elkarrekin bizitzearen inguruko ikuskerak bera ezberdina dela denboran barrena eta kultura bakoitzean.

Bestalde, ekonomia aldetik aurreratuta dauden gizarte modernoetan joera handia dago individualismoaren eta norbere interesen aldera eta, horregatik, norbere hautuak izan beharra eta zuzena eta solidarioa den erkidegoan bizi beharra bateratu behar dira, planteamendu horiek berezkoak dituzten konpromiso etikoak aintzat izanik betiere.

Horrenbestez, hezkuntza arloko profesionalek erronka handi bati egin behar diote aurre honako galdera hauei guztiei erantzungo badiete: Zein dira gure ingurunearen berezko ezaugarriak? Non ikasi eta irakasten dira gatazketan aurrera egiten lagunduko diguten balioak eta printzipioak? Zer egin daiteke hezkuntza arloan ikasleek herritar aktiboak izaten ikas dezaten, lankidetzan aritu, arduraz erabaki eta gatazkak bakean konpontzeko gai izaten ikas dezaten, nabarmena den honetan balio horiek ez direla gure gizartean nagusi diren balioak?

Barneratu beharreko kontzeptuak, balioak eta gaitasunak

Ez dugu erantzunik egin ditugun galdera horiek ihardesteko, baina gakoak bilatuko ditugu: aniztasuna onartzea, beste kultura batzuen berri izatea, gatazkak konpontzeko gaitasun espezifikoak landu eta gatazkak negoziazioaren eta bitartekotzaren bidez konpontzea...

Hezkuntzak gizarte loturak sortu behar ditu pertsonen artean, kulturaren eta balioen transmisioa ziurtatzeko. Hezkuntzak sozializatzeko eta bizikidetzako funtzio hori betetzea, osteraz, zaila da, gero eta berdintasunik eza, pobrezia eta bazterketa handiagoa dagoelako gizartearen (ekonomia eta gizarte krisialdian daudelako), gero eta indarkeria eta kriminaltasun handiagoa dagoelako (balio etikoak krisialdian daudelako), gero eta gatazka gehiago daudelako zibilizazioen eta etnien artean (kultura krisialdian dagoelako)... Alde horretatik, hezkuntzak ezin ditu berez konpondu gizarte loturak hausteak dakartzan arazoak, baina elkarrekin bizitzeko borondatea lantzen lagun dezake, borondate hori gizarte kohesioaren eta nortasun soziopolitikoaren funtsezko osagaia den heinean.

Metodologia

Alor honetan diharduten gizarte eragileen artean antzeman dugun gabezia orokorretako bat eskolaren eta gizartearen artean izan litekeen loturarik eza da. Alde horretatik, garrantzizkoa da barneratzea hezkuntzaren gaineko erantzukizuna ezin duela hezkuntza sistemak bakarrik hartu bere gain. Aitzitik, gizarteak ez ditu onartuko gizarte eragile horiek internazionalismo solidarioaren eta garapenerako heziketaren alorrean lantzen dituzten balioak, jarrerak eta gaitasunak, gazteak balio, jarrera eta gaitasun horiek lantzen hasi eta inguruneaz jabetzen hasteko oinarriak finkatzen ez baditugu. Hori dela-eta, egin beharko genukeen lehenengo gauzetako bat gizarte eragileek egiten duten lana eskolan sartzeko bideak bilatzea da zalantzarik gabe.

Ez da hutsala pentsatzea bitartekoak eman ditzakegula, egun nazioartean jazo diren gertakariak azaltzerakoan, hezkuntza arloko profesionalek globalizazioa, inperialismoa, gerra, agenda 21 eta bestelako kontzeptuak ulertarazteko euskarri pedagogiko egokiak izan ditzaten. Era berean, uste dugu alde biko jarduna izan behar duela, gizarte eragileek gogoeta egin behar dutela haurrek eta gazteek landu behar dituzten gaitasunei eta balioei buruz, gizarte osoaren heziketan zabaldu nahi ditugun jarrerei buruz hausnarketa egiteko hartara.

Horretarako, ikastetxeetako programen barnean halako kontzeptuak lantzeko bide eman beharra (internazionalismoa eta garapenerako heziketa landu beharra) aldarrikatu beharko litzateke curriculum osatzerakoan, kontzeptu horiek azaltzeko aukera bakarra irakasleen borondatearen edota trebakuntzaren arabera baita egun.

Orobat, ez da nahikoa nazioarteko gertakari jakin batzuei (Irakeko gerrari, Palestinaren eta Israelen arteko arazoei, Mendebaldeko Sahararen autodeterminazioarako eskubideari...) buruzko monografikoak egitea; aitzitik, internazionalismo solidarioaren eta garapenerako heziketaren alorrean lantzen diren kontzeptuak zeharka landu behar dira, irakasgai guztietan.

4. INTERNAZIONALISMO SOLIDARIOA ETA GARAPENERAKO HEZIKETA EUSKAL CURRÍCULUMEAN

Jorrazten ari garen gaia euskal curriculumean txertatzeko aldera, egindako analisi laburraren ostean, honako galdera hau erantzuten saiatu behar dugu: internazionalismo solidarioaren eta garapenerako heziketaren aldetik, zein dira Euskal Herriko 16 urteko gazte orok oinarriko ikasketak amaitzean jakin behar dituen gutxieneko kontzeptuak, jakin behar dituen gutxieneko prozedurak eta barneratu behar dituen gutxieneko balioak?

Kontzeptuak

Norbere nortasuna eta aukera berdintasuna: norbere nortasuna izateko eskubidea (Euskal Herrian eta beste herri txiki batzuetan are garrantzitsuagoa dena) errespetatzea eta aukera berdintasuna bateratzea, alegia, beste modu batean pentsatu eta jokatzeko duten pertsonak eta beste ingurune, herrialde, arraza eta kultura batzuetako pertsonak onartzea, norbere nortasunari uko egin gabe; banakoen aniztasuna eta espezifikotasuna aitortu eta onartzea.

Beste herri, kultura eta zibilizazio batzuk (gizadiaren adar bakarretik sortzen diren kultur adarrak) ezagutzea: haien ezaugarri jakin batzuk ezagutzea baino gehiago –ezinezkoa eta aspergarria litzateke–, kultur arloan Mendebalde bezain aurreratuta edo aurreratuago dauden garapen guneak daudela ulertzea.

Inperioa eta kkolonizazioa: Europak duela 500 urte Amerika, Afrikako eskualde batzuk eta Asiako beste batzuk kolonizatu zituela eta XX. mendean munduko beste eskualde batzuk bizikiago kolonizatu dituela jakin eta kolonizazio horren historiaren berri izatea; Amerika, Afrika eta Asia menderatzeko modu bidegabeken berri izatea, gaur egun bere horretan jarraitzen duten neurrian.

Munduko sistemak (Nazio Batuen Erakundea, Nazioarteko Diru Funtza, multinazionalak, elizak...) ulertzea: nazioarteko mendekotasuna.

Aldaketaren gaineko kontzientzia: garapenari eta aurrerapenari buruzko ideiak; garapen zalekeria, garapenerako lankidetzeta eta bestelako kontzeptuak identifikatzea.

Bidezko merkataritza eta merkataritza solidarioa: gizartea salatu eta ohartarazi, informatu eta hezi, kontzientzia harrarazi eta mobilizatzeko tresnak.

Globalizazioa: gizarte osoaren balioak; globalizazioarekiko jarrera kritikoa; nazioarteko harremanei buruz hausnarketa egin eta herritartasun globalarekiko iritzia izatea.

Menderakuntza eta askapena: egun nazioartean jazotzen diren prozesu asko eta asko ulertzeko giltzarriak.

Loturen gaineko kontzientzia: erkidegoen, herrien, gutxiengoen eta nazioen artekoena.

Ekoi-zpena eta berdintasunik eza: batzuek aberastasunak eta ondasunak pilatzeak besteek aberastasuna galtzea dakarrela ulertzea; baliabide mugatuei buruzko hastapenak; etekinen erlatibotasuna.

Gatazkak konpontzea: arazoen jatorria ulertu eta erantzuteko gai izatea; mundu bidezkoagoa lortzeko beharrezko aldatetarekiko konpromisoa hartu eta aldaketa horretan esku hartzea; gizartearen parte hartze aktiboa eta erantzukizuna; berdintasunik ezaren arrazoiak bilatu eta irtenbideak proposatzea; nazioarteko gatazketan irabazleek eta galtzaileek zergatik mintzatzen garen jakitea.

Gaitasunak

Parte hartze demokratikoa. Parte hartze demokratiko aktiboaren bitartez pertsonen eskubideak eta erabakiak areago errespetatu daitezkeen lortu eta, hartara, aukera berdintasuna sustatu daitezke, hala eskolan, nola eskolatik kanpo. Parte hartzeak erantzukizuna eta solastatu, entzun, plangintzak egin eta taldean lan egiteko gaitasuna lantzen laguntzen du.

Talde lana. Talde lanaren bitartez norbere abileziak eta mugak eta norbere buruaren (norbere ahulguneen eta indarguneen) gaineko ezagutza osatu eta aberastu daitezke.

Norbere buruaren gaineko kontrola. Gatazkei egokiro aurre egiteko gaitasuna alde egiteko (positiboa izateko) gaitasunaz jabetu eta gaitasun hori bereziki korapilatsuak diren eta pentsamolde, interes edo gogo ezberdinek elkarren aurka egiten duten egoeretan aplikatzean oinarritzen da, halako egoeretan azaleratzen diren emozio negatiboak kontrolatuz (norbere burua kontrolatuz) eta emozio horiek onerako bideratzeko gai izanik betiere.

Informazioa konparatu eta egiaztatzea. Bertsio ofizialekiko eta bertsio horien balioarekiko kritikotasuna lantzeak, informazioa gune mediatiko handietan osatzen dela jabetzeak garrantzi handia du gizarte txikietan (hala nola, euskal gizarteetan) eta, horregatik, hurbilekoagoa eta egiaztagarriagoa den informazioa sustatu behar da.

Arrazoiak analizatzeko gaitasuna. Komunikabideek informazioz josten gaituztela eta, oro har, gertakariak egiturazko egoeretatik askatu eta kausen eta efektuen arteko harremana isiltzen dutela-eta –Afrikari buruzko informazioa da adibiderik garbiena–, gertakariak esparru orokorragoan (metropoliak aldiriak menderatzen dituzten egoeretan, kolonizazioaren ondarean, autodeterminaziorako eskubidearen ukapenean, interes ekonomikoetan...) kokatzeko gai izan behar dugu.

Erabakitzeko erantzukizuna duten pertsonengan eta erakundeetan presio egiteko gaitasuna, aliatuak identifikatuz eta euren laguntzaz baliatuz betiere.

Balioak

Elkartasuna. Euskal Herrian (batez ere, landa eremuan) zabalduen egon den talde ohituretako bat auzolana izan da, eta oraindik ere bizirik jarraitzen du Nafarroa Garaiko herri bakartu eta txikietan eta Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako hainbat eskualdetan. Euskal Herria gizarte solidarioa da eta, balio horren eta elkartzera bultzatzen gaituen euskal idiosinkrasiaren ondorioz, GKE kopuru ederra eta gizartearen hainbat alorretan elkartasuna biltzen duten askotariko taldeak ditugu: odola eta organoak emateko elkarteak –euskal gizartearen batez bestekoa Espainiako eta Frantziako handienetarikoa da–, Mendebaldeko Saharako eta beste herri batzuetako haurrak hartzeko kanpainak, erakundeek laguntza ematea beste herri batzuei... Horren lekuko dira Euskal Herri osoko udaletan eta Legebiltzarrean herri kurduaren eta Irlandako bake prozesuaren alde onartu diren mozioak.

Justizia: gainerakoekiko eta ingurunearekiko erantzukizuna lantzea; norbere buruari alderdikeriari eza existitzen den galdetzea, are gehiago nazioarteko gatazken alorrean; iritzi kritikoa eta arrazoitua izan beharraren garrantzia eta iritzi hori balio kontzeptuekin (hala nola, bakearekin eta normalizazioarekin) lotzea.

Bizikidetzeta eta errespetua: gehiengoekin eta gutxiengoekin bizitzen ikastea; guztiz kontrakoak diren iritziei eta jarrerei arrazoiaren bidez aurre egiteko prestatzea; Euskal Herria kultur aniztuna den honetan, desberdintasuna lantzea; beste kultura eta gutxiengo batzuekin informazioa trukitzea.

Parte hartze demokratikoa eta autodeterminaziorako eskubidea. Gaur egun, oraindik ere bada Euskal Herrian herri biltzarrek zuzentzen duten udalherri txikirik. Herritar guztiak dira bertako kide, eta guztiek dute hitza eta botoa; areago, ildo nagusiak (gobernagarritasuna, azpiegiturak, hornikuntza...) zuzenduko dituztenak aukeratzerakoan ere, herritar guztiak dira hautagai.

Guztion artean taldearen ongizatearen alde egitea; aurrekoa nazioartean aplikatuta, autodeterminaziorako eskubidea, nazioarteko gatazka asko eta asko konpontzeko giltzarri; herrien eskubide besterenezina, iraganean eta orainean leku askotan urratu dena.

Zibilizazioa eta kultura: zibilizazioa kulturarekin lotzea, Mendebaldeko zibilizazioa beste kultura batzuen aurrez aurre jartzen duen eskema arrazista eta kolonial klasikoaz harago; Europako eta Europaren aldeko zibilizazioa gizadiaren enborreko adar bat (hain zuzen ere,

munduko gainerako herriak kolonizatu eta gainerako kulturak gutxietsi dituen) besterik ez dela jakitun izatea; nagusi den ikuspegi etnozentrikoarekiko kritikotasuna.

5. BIBLIOGRAFIA

XAVIER GARAGORRI, JESÚS MARIA GOÑI, ANTONI ZABALA (diseinu taldea): *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma. Hezkuntza konpetentzia orokorrak* (dokumentu orokorra, zirriborroa). 2005.

JOSEBA OSSA (koordinatzailea): *Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculuma. Oinarrizko txostena*. 2005. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Ikastolen Elkartea, Kristau Eskola eta Sortzen-Ikasbatuaz.

ITZIAR CABALLERO (koordinatzailea): *Garapenean hezteari buruzko lan kaierra*. 2004. UNESCO Etxea, EAEko GGKEen Koordinakundeko Garapenerako Heziketarako Bizkaiko Taldea, Hegoako Garapenerako Heziketarako Taldea eta Aloban Fundazioa.

WALTER WENDELIN: *Apuntes para un internacionalismo solidario*. 1996. Askapena

CARMEN LARA, AGUSTÍN VIÑAMATA: *Hagamos un solo mundo. Manual de Educación para el Desarrollo*. 1990. Manos Unidas

6. GIZARTE ERAGILEEK OSATU DITUZTEN ETA HEZKUNTZA ARLOAN ERABILTZEKO MODUKOAK DIREN BESTE MATERIAL BATZUK

- Balioetan hezteak. Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako unitate didaktikoak. Manos Unidas.
- JOSE MANZANEDA: nazioartean eragina duten hainbat kontzepturi (globalizazioari, inperialismoari, egonkortasunik ezari...) buruzko DVD bilduma. Euskadi-Cuba.
- Material para un análisis crítico del V centenario. 1990. Amaiurko Quetzal Agiria. IPES